

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko otsailak 6 · 1384 zenbakia



ARGAZKI GUZTIEN ATZETIK

AZKEN EGUNAK

MERKEALDIA

2MÓ 99€

lehen 100€

**betaurreko graduatuak
batzuk eguzkitakoak izan daitezke**

Kontsultatu optikan kanpamaren erabazgarritasunak.



8.855.93723

MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2.
EIBAR



hitzordua
eskatu



www.multioplicas.com





**LEIRE TREVIÑO
BERECIARTUA**

Eibar

Ingeniaritza
Biomedikoa

4.maila



Gure ikasleen ahotan

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobbie edo zaletasunik

Nire izena Leire Treviño da, 21 urte ditut eta Eibarkoa naiz. Unibertsitatera iritsi aurretik Eibar BHI-n ikasi nuen, nire hezkuntza guztia bertan burutuz. Txikitatik eskubaloia praktikatu dut, hori da nire zaletasun nagusia.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Biomedikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Beti izan dut helburu pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzea, horregatik aukeratu nuen gradu hau. Ildo berean, Mondragon Unibertsitatea hautatu nuen PBL metodologiari esker ikasitakoa

benetako proiektuetara eramaten dugulako.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arteko esperientzia oso positibotzat balioetsiko nuke. Taldean lan egin dugu, eta klaseak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez jasotzeak komunikatzeko eta egoera guztietara egokitzeko aukera eman digu. Gainera, PBL metodoari esker esperientzia oso praktikoa eta errealista bihurtu da.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Metodologia oso egokia eta praktikoa da. Arazoak taldean

edo bakarka konpontzen saiatzea bultzatzen du, irakasleei galdetu aurretik. Horrek autonomia handia ematen digu eta ikaskuntza askoz sakonagoa bihurtzen du.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana PBL proiektuak dira. Proiektu bakoitzean, gradu bakoitzeko onenak PBL Day-era jotzen du. Hobetu daitekeena urtero bigarren PBL Day bat eskaintzea litzateke.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Etorkizunean, nire interesa duten arloetan prestakuntza eta esperientzia gehiago jasotzeaz gain, lan bila hastea ere espero dut.

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubeen ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Jose Luis Irigoien argazkilaria 'Eibar, laino guztien gainetik edo... azpitik' erakusketa zabalduko du gaur, Topalekuan. Mirafloresen duen etxe-estudioan elkartu gara berarekin eta argazkilaritzari eskainitako bizitza gertutik ezagutzeko aukera izan dugu.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Andoni Bedialauneta “Xare” gogoan

Andoni Bedialauneta Lakak 2026 urtarrilaren 26an laga gintuen. Andoni gauza asko izan zen.

14 urterekin, Ondarroan, arrantzale hasi zen bere aitaren ogibideari jarraituz. 1969. urtean, 18 urte zituela, atxilotu zuten eta garai hartako epaile frankista batek 25 urteko kartzela-zigorra ezarri zion. Zortzi urtetik gora igaro zituen barruan, berriz ere, askatasuna berreskuratu zuen arte. Atzean gelditzen ziren Segoviako ihesaldian egindako lanak, gose grebak, militantzia eta errepresio frankistaren aurkako urte gogor haiek. Ondoren Ermuan bizi eta familia osatzea lortu zuen.

Andoni eskola maisua ere izan zen, eta Amañako herri-eskolan urteetan aritu zen erretiroa bertan hartu zuen arte. Andonirekin eskuz esku lanean aritu ginenok bere bertso-zaletasun eta euskararekiko konpromisoarekin jakitun gara. Berarekin irakaskuntzari buruz izandako elkarrizketak adostasunetik desadostasunetik baino gehiago zuten, eta gogoeta haiek gaur ere bidelagun ditugu Andonirekin Amañako eskolan lanean izan ginenok. Berak argi zuen: irakastea ez zela neutroa eta ikasgelan hartzen ziren erabakiek gizartea ukitzen zutela.

Andonik izan zuen euskal kultura eta langile klasearekiko konpromisoa sendoa izan zen. Bere ahotsa isildu bada ere, Andoniren arrasto xume baina sendoak gurean jarraitzen du. Eskerrik asko, Andoni, lankide zintzoa eta lagun ona.

Oskar San Martin

Negua badoa...

Aratusteak euskal kulturaren parte bizia dira: aintzinako errituak, urteetan zehar festa eta identitatea nahastu dituen ospakizuna. Aratuste garaia naturaren zikloekin lotuta dago eta guk neguaren amaierarekin lotzen dugu. Beste negu bat badoa, baina kalean lo egiten dutenentzako egoera ez da konpondu. Bi urte daramatzate lo egiteko aukerarik eduki gabe. Alkateak lehen zegoen dispositiboak ixtea erabaki zuenetik, ez zaio konponbiderik eman auzi honi, bi negu kale-gorrian lo egiten, dutxatzeko aukerarik gabe, garbitzeko aukerarik gabe, berotasunean egoteko aukerarik gabe, segurtasun sentsazioarekin sentitu gabe. Karmelitetan zegoen dispositiboak, seguruenik, ez zituen minimo batzuk betetzen, baina zeozer zegoen. Gaur egunean ezer ez dago. Egoera bortitz honi aurre egiteko, herrian plataforma bat eratu genuen orain dela bi urte: “END”. Udaletxeari eskatzen zaiona argia da: kalean dau-dan pertsona orori harrera egiteko dispositibo bat abian jartzea, eta hasiera batean asistentzia bat ematea (ostatua, elikadura eta higiena). Hasierako fase honek baldintzak sortuko lituzke eskuhartze integral bat eskaintzeko. Helburu honekin, hilabete batzuk daramatzagu sinadurak biltzen eskakizun honen inguruan. Asteburu batzuk Untzagan egon ondoren, hurrengo asteburuetan Urkizun eta Amañan aukituko gaituzue. Aterpe bat eskubide bat dela aldarrikatzeko, gerturatu eta sinatu.

Ion Azkune (END plataformako kidea)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PLATER-SAKON → Gaztelerazko ‘plato hondo’. “Gurian lapikokua beti plater-sakonian, saldarik jausi ez dein”.

PLAUST/PLAUSTA → Jaustearen onomatopeia. “Eskixak horman kontra jarri, eta plausta! jausi jataz lurrera”.

1933

Felisa Ventura
laborategian

Eibarko emakumeak gauza askotan aitzindariak izan direla sarritan entzuten dugu, eta hala dela adibide ugari dauzkagu, gainera: argazkiko emakumea Felisa Ventura, Udalaren praktikante titularra izatera ailegatu zen andra da, Udaleko bere laborategian lanean.

ARGAZKIA: IRATXE BASKARAN



Farmaziak

BARIXAKUA 6
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
ZAPATUA 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 10
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 11
EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre 4)
EGUENA 12
EGUNEZ Lekunberri (Isasi 11)
BARIXAKUA 13
GUNEZ Zukueta (San Agustin 5)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Charo Sas Novoa.** 90 urte. 2026-I-22.
- **Angel Benito Garcia.** 90 urte. 2026-I-28.
- **Jose Martin Urriola Alberdi.** 74 urte. 2026-I-30.
- **Maria Luisa Lafuente De Los Mozos.** 77 urte. 2026-I-29.
- **Marian Abad Garcia.** 62 urte. 2026-I-31.
- **Josefina Urien Areitibiritxinaga.** 2026-II-01.
- **Carmen Aguado Gil.** 100 urte. 2026-II-01.
- **Lorenzo Gomez de Campo.** 2026-II-01.
- **Maria Baquero Botello.** 2026-II-01.
- **Arrate Guridi Aldalur.** 2026-II-02.
- **Manuel Rementeria Azpiazu.** 80 urte. 2026-II-03.
- **Teresa Alcedo Araluze.** 91 urte. 2026-II-03.



Eibarko emakume ingeniariak euskaraz arituko dira astelehenean Andretxean

S.H. Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira, astelehenean (otsailak 9), 17:00etatik aurrera, *Emakume ingeniariak. Esperientzia inspiratzaileak* izenburuko mahaingurua egingo da Andretxean, euskaraz. Ingeniaritzaren sektorean diharduten Eibarko hiru emakumek beraien ibilbide profesionala eta esperientzia pertsonalak partekatuko dituzte. Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak antolatu du, Gipuzkoako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialarekin lankidetzan,

eta ingeniariatzarekin lotutako ikasketekiko interesa piztea da helburu nagusienetakoa. Saioak ingeniariatzak zer nolako zeregina duen azaltzeko eta lan-irteera anitzak ezagutarazteko aukera emango du. Mari Luz Guenaga Gomez (ingenieri informatikoa), Elena Idigoras (proiektu ingeniaria Biele Group-en) eta Naiara Romanet (Laboral Kutxako ingeniaria) arituko dira, eta Laida San Sebastian, Entrepreneurship Teknologiako koordinatzailea izango da moderatzailea.

Lanbide Heziketak 3.000 ikasletik gora elkartu dira Ikasenpresa Azokan

Eibar Lanbide Heziketaren elkar-gune bihurtu zen atzo goizean. Eus-kadiko 61 ikastetxetatik etorritako 3.000 ikasletik gora bildu ziren herrian, 622 proiektu aurkezteko (15 izan dira Debabarrenekoak). Tipologia ezberdinetako proposamenak ikusi ahal izan ziren herrian zehar jarri dituzten lau karpetan, Lanbide Heziketaren aniztasunaren erakusle.



Itsas energiari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Ingeniaritza Eskolak Eibarren

S.H. Eguaztenean, otsailaren 11n, ItsasEibar jardunaldiaren laugarren edizioa egingo da Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atalean (San Andres aretoan). Goizeko 11:30etik 13:30era, Itsas Energiari buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte irakasle-adituek, itsas energiaren azken berrikuntzak aurkezteko: *Master Erasmus Mundus, REM++* (Jesus Mari Blanco, Ingeniaritza

Energetikoa saila, EHU), *Enlight: Next Generation Offshore* (Alain Ulazia, Ingeniaritza Energetikoa saila), *Tendencias futuras de las cargas del oleaje contra estructuras offshore* (Nahia M. Iturricastillo, Maynooth U, Irlanda, PhD) eta *OWC with different electric generators* (Jose Antonio Kortajarena, Teknologia Elektronikoa saila, EHU). Sarrera libre da, lekua bete arte.



Jantokietako soberakinak doan banatzeko bi makina gehiago

S.H. La Salle Isasi, San Andres, Aldatze eta Arrateko Andra Mari ikastetxeek elikagai xahuketaren aurkako Rexcatering sarearekin bat egin dute, aste honetan egindako prentsaurrekoan jakinarazi dutenez. Jon Iraola alkateak eta Eva Juez Ingurumen zinegotziak, Vanesa Larrabide Ingurumen teknikariarekin eta Alvaro Saiz Rexcatering-eko ordezkariarekin batera azaldu dituzte zerbitzuaren nondik norakoak. Horrela, gaurtik hasita, La Salle Isasi, San Andres, Aldatze eta Arrateko Andra Mari ikastetxeetako jantokietan kontsumitzen ez den janaria bi makina berritan ipiniko da eskuragarri, nahi duenak doan eskuratzeko moduan. Makina berrietako bat Errebalen, merkatu plaza barruan ipini dute, eta bestea Urki kaleko 16. zenbakian (Cepa taberna pareko arkupeetan). Azaldu dutenez, proiektu honen bidez, Ingurumen Arloak eta parte hartzen duten ikastetxeek elika-

gaien xahuketaren aurka borrokatzea dute helburu, soberakinak edonoren eskura jarritz, eta hondakin organikoaren prebentzioan eta “Hondakin Zero” kudeaketan beste urrats bat emanez. Zero Hondakin Fundazioarekin lankidetzan eta Eibarko Udalaren zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketari esker garatu da.

Lehen *Hondakin Zero Hozkailua* Legarren ipini zuten, eta Ego-gain Gerontologia Zentroak eta J.A. Mogel Ikastolak —azken horrek Goyeneche Fundazioko Eibarko Garagune zentroaren laguntzarekin— 2024ko erdialdetik ari dira beren eguneroko soberakinak Legarren, frontoiaren ondoan dagoen makinan lagatzen. Orain arteko emaitzarekin pozik daude: “Makinara sartutako janariaren %100 kontsumitu da, eta guztira 4.543 errazio berreskuratu dira. Batez beste hilean 303 errazio, eta egunean 20 errazio banatu dira”.

Eibar Mogidu ekimenak paziente onkologikoak hartuko ditu aurrerantzean

S.H. Martitzenaz geroztik, Eibar Mogidu zerbitzuak paziente onkologikoak ere artatuko ditu. Horrela, Eibar Mogidu Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzuak bere jarduketa-esparrua zabaldu du, tratamenduan dauden paziente onkologikoak ere artatzeko. Erabiltzaileak Onkologikotik eta Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartetik bideratuko dituzte, jarduera fisikoa modu egokitu eta seguruan sustatzeko helburuarekin. Lankidetzak bi noranzko izango ditu, hala, zerbitzuko orientatzaileak bai Onkologikoak bai Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartek informazioa emango diete erabiltzaileei bultzatutako jarduera fisikoari eta programa espezifikoetara.

Gipuzkoan martxan dagoen osasun-ekimen honetako zazpi udalerrietako bat da Eibar. Zerbitzuak Toribio Etxebarriako Osasun Zentroan, Eibarko Ospitalean eta Astelena pilotalekuko bulegoan ematen du arreta, astearteetan 11:00etatik 17:00etara, eta ostiraletan 09:30etik 13:30era. Informazio gehiagorako deitu 688 724 174 telefonora edo mezuia idatzi mogidu@eibarkirola.eus helbidera.



Santaeskean ibili dira aurten ere

Eibarko Musika Eskolakoek bi kalejira egin zituzten eguaztenean, Santa Ageda bezperan. Makila eskuan hartuta, koplak abesten eta santaeskean ederto ibili ziren. Arratsaldeko lehen kalejiran Nagusien Musika Tailerreko ikasleak aritu ziren kantuan, erdiguneko kaleetan. Eta iluntzean, berriz, Musika Eskolako koruak eta Kaleetan Kantuz taldekoak ibili ziren, soinu ikasleek lagunduta eta Jose Miguel Laskurainen zuzendaritzapean. Ondoren, afari-merienda ederra egin zuten, Auzokoak elkarteak gonbidatuta.

Argazkiak eta testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



Jose Luis Barinagarrementeria Astarloa

10. URTEURRENA

2016/02/08



Badira 10 urte gure
aldetik joan zinela,
baina zure irribarrea eta
alaitasuna BETIRAKO
izango dira gure artean.

- ETXekoak -



Marian Abad Garcia

2026/01/31

**“Beti egongo zara
gurekin. Asko maite
zaitugu”**

ESKERRIK ASKO une latz
hauetan gurekin egon
zareten guztioi.
- FAMILIA -



FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAI

FUNERARIA MUGICA
Funeraria Mugica

TANATORIO EREKATORIO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Elgoibar: Xalilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan) Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 18
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Marian Abad Garcia

2026/01/31

**Mariantxu, momentu
gogor hauetan hutsune
haundia sentitzen dugu.
Ez zaitugu inoiz
ahaztuko, egunero
erakutsi diguzunagatik:
balioak, errespetua
eta zure gizatasuna.
Bihotzean betirako,
MARIAN**

- URKOTRONIK -



Jesus Díaz García

10. URTEURRENA

2016/02/06

“Beti gure gogoan”

- ETXekoak -



2026/01/31

**Zure irria gure poza.
Oroitzapenak
bihotzean.
Marian eta zortzi ...
BEDERATZIAK!!!**

Marian Abad Garcia



SAN BLASAK



2026



Martitzena (otsailak 3) San Blas eguna izanik, aurten ere Eibarko ohi-tura zahar eta maitatue-netakoari jarraitu diote eibartar askok.



Egun osoan herriko elizetan egin ziren ospakizunetara joan ziren, sanblasak eta eztatiko gaitzetatik babesteko kordio edo zintak bedeinkatzera.



“Aitortzaren garaia da, eta Euskal Herri mailako prozesu ofizial eta integrala behar dugu”

EUSKAL HERRIKO TORTURATUEN SAREA



Euskal Herriko Torturatuen Sareak (EHTS) II. Nazio Batzarra egingo du otsailaren 14an Eibarren. Ingeniaritza Eskolan elkartuko dira, sarea sendotu, aitortza-prozesuan eragin eta etorkizuneko ildo estrategikoak zehazteko.

Testua **EIRATI ALVAREZ MALAXETXEBERRIA**

Euskal Herriko Torturatuen Sareak (EHTS) II. Nazio Batzarra egingo du otsailaren 14an Eibarren, Ingeniaritza Eskolan. Bi urteko saretze-lanaren ondoren, topaketa honek tortura jasan duten pertsonen antolaketa sendotzea, aitortza ofizialaren bidean aurrera egitea eta etorkizuneko lan-ildoak zehaztea du helburu. Sareko kideekin hitzorduaren garrantziaz eta biktimen aitortzaren egungo egoeraz hitz egin dugu.

Zer helbururekin bilduko zarete?

Lau ardatz nagusi ditugu: saretzea, ahalik eta torturatu gehien biltzeko; errelatoan eragitea, egia eta kontakizuna ikusgarri egiteko; aitortzaren bidea urratzea, erreparazioa eta berriro ez errepikatzeko bermeak lortzeko; eta elkarzaintza, oraindik dagoen sufrimenduari modu kolektiboan aurre egiteko.

Zer esan nahi du sarea nazio mailan egituratzeak?

Nafarroako Torturatuen Sareak bide bat erakutsi digu: torturatuak ahalduntzea eta aktibo bihurtzea, eta aldi berean torturaren errealitatea azalera eta kaleratu beharra zegoela. Esperientzia hori abiapuntutzat hartuta, dinamika Euskal Herri osora zabaltzea izan da hurrengo urratsa.

Tortura sei hamarkadatan zehar Euskal Herri osoko herritarrek pairatu izan baitute modu sistematikoan. Lurralde bakoitzean dimentsioak ezberdinak izan arren, torturak dimentsio nazionala izan du, eta

horregatik iruditu zitzaigun sareak ere dimentsio nazionala izan behar zuela.

Herrialdez herrialde egindako aurkezpenek zer ekarpen egin diote sareari?

Saretze-prozesuan, gure artean elkar ezagutzea, esperientziak partekatzea eta elkar zaintzea oso garrantzitsua da. Auzolan erraldoi bat eskatzen du horrek, ahalik eta modu zabalenean eta inor kanpoan utzi gabe. Aldi berean, torturak Euskal Herrian izan duen dimentsioa marrazteko eta kaleratzeko balio izan digu.

Zein da gaur egun torturaren biktimen aitortzaren egoera Euskal Herrian?

Euskal Herrian agertoki berri bat ireki da estatuaren indarkeria pairatu duten pertsonen aitortza ofizialerako. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroa Garaian legeak sortu dira horretarako, eta tresna horiek ahalik eta gehien baliatu nahi ditugu.

Nafarroan legea martxan dago, eta 71 torturatu jaso dute aitortza ofiziala. Euskal Autonomia Erkidegoan, 260 torturatu inguru aitortu ziren, baina eskaerak egiteko epea itxita dago. Ezinbestekoa da epe berri, mugarik gabekoa, irekitzea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako tortura kasu guztiak aurkezteko, eta aitortza eta erreparaziorako mekanismo integrala hobetzea.

IVAC-KREIren arabera, 5.394 tortura kasu daude dokumentatuta, baina lekeen bidez aitortutakoak ez dira %10era iristen. Horrek konpromiso politiko handiagoa behar dela erakusten du, baliabide eta

mekanismo faltagatik. Guk argi diogu: aitortzaren garaia da, eta Euskal Herri mailako prozesu ofizial eta integrala behar dugu.

Zein neurri konkretu falta dira erreparazioari dago-kionez?

Gure ustez, aitortza-prozesua bere osotasunean eman ez den bitartean, oso zaila da erreparazio-neurriez hitz egitea. Lehen neurri erreparatzailea aitortza bera dela uste dugu, eta hortik aurrera etorri behar dira torturatuentzako erreparazio integraleko neurriak: maila sozialean, osasun arloan, maila politiko-instituzionalean, zaintzan...

Gizarteak nahikoa ezagutzen du torturaren errealitatea?

Euskal Herrian ia denok izan dugu inguruan torturatu izan den norbait; beraz, oso hurbiletik bizitako errealitatea izan da. Gizarteak ezagutza hori handitzeko baliabide asko sortu ditu: filmak, dokumentalak, kankak, bertsoak, prentsako artikulatuak, hitzaldiak... Orain, instituzioei dagokie zerbait egitea.

Legeak torturaren infernua ahalbideatzeko eta ezkutatzeke erabili dira; orain, lege horiek sortutako zauriak ixteko eta mamuak uxatzeko balio behar dute. Egia osoa azaleratzeko ordua iritsi da, eta egia horrek dakartzan ondorioei aurre egiteko eta erantzukizun publikoa hartzeko garaia da.

Zer garrantzi du torturatuak aurrez aurre zein Nazio Batzarrean biltzeak?

Aurrez aurre biltzea eta Nazio Batzarrean elkartzea funtsezkoa da saretze- eta zaintza-prozesuetan. Horregatik, egun honetan torturatu guztiei dei berezia egiten diegu, ahal duten heinean otsailaren 14an Eibarrera hurbil daitezen.

Aitortza-prozesuan aurrerapausoak eman nahi ditugu, eta bide horretan torturatuok subjektu aktibo izan nahi dugu. Bizirik gaude gertatu zaiguna kontatzeko, eta gure ondorengoek ere hemen gertatutakoa ezagutu behar dute. Gure esku dago hori transmititzea. Askotan esan dugun bezala: garrantzitsuena ez da egin ziguten hori, baizik eta egin zigutenarekin zer egiteko gai garen.



EHTS-ko kideak Eibarko Ingeniaritza Eskolan IRATIALVAREZ

Eibartarrei zer esango zeniekete?

Ariketa erraldoi bat egiten ari gara Euskal Herri osoan, baina lanketa hau diskrezioz, errespetuz eta zainduz egitea oso garrantzitsua da guretzat. Jendearengandik hurbil egin nahi dugu lana, tokian toki eta eskualdez eskualde.

Euskal Herrian bezala, Eibarren ere torturaren errealitatea ezaguna da. Herrian eta eskualde osoan hainbat pertsonak tortura pairatu dute, eta haiekin egongo gara otsailaren 14an, eta baita data horretatik aurrera ere.



MATRIKULA IZEN EMATEA
Otsailaren 2tik 13ra

Tlf: 943 70 11 50 | Whatsapp: 614 90 41 12
www.aldatze.eus | aldatze@aldatze.org

“Gaur egun milioika eta milioika irudi egiten dira, baina zenbat argazki?”

JOSE LUIS IRIGOIEN • Argazkilaria



Bilbon “kasualitatez” jaio eta Santurtzin hazi arren, Eibar goitik behera ezagutzen du Jose Luis Irigoienek. Gure herriak inoiz izan duen argazkilari garrantzitsuenetakoa da eta, mundu osoan zehar irudiak harrapatzen ibili den arren, herriko txoko asko ere irudikatu ditu. Horren erakusle da gaur bertan, 19:00etan, Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan, zabalduko duen erakusketa.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**
Bideoa **OIHANE ZABALA**

Otsailaren 21era arte egongo da zabalik Irigoienek Eibar, laino guztien gainetik edo... azpitik erakusketa. Lainoak ardatz hartuta, guztira 38 argazki aurkeztuko ditu, inoiz argitaratu gabeak. Bere enegarren erakusketa izango da, bizitza eskaini baitio argazkilaritzari. Milaka argazki egin ditu bere ibilbidean zehar eta bere ondarea Euskadiko Artxibo Historikoari emango dio laster. Horrela, Mirafloresen duen etxe-estudioa hustuko du, baina oraindik geratzen zaio gauza berriak sortzeko gogoia. Bertan elkartu gara berarekin.

Nola sortu duzu argazkilaritzaren tenplu hau?

1962an hasi nintzen argazkigintzan. Lehenengo urteetan lehiaketetan parte hartzeko argazkiak egin nituen eta gero, gai edo bidaia bat ardatz hartuta, bildumak egiten hasi nintzen erakusketak egiteko. Gaur egun, 4.500 argazki baino gehiago ditut erakusketak egiteko prest. Bilduma bakoitzean gutxienez 30 argazki daude eta kasu batzuetan (esate baterako Vietnamen, Indian eta sahararren errefuxiatu zelaietan egindakoak) ehundik gora.

Zure lanetan ikusten da gai ezberdinak lantzen dituzula: bidaia, biluziak, erretratuak...

Eta teknika bereziak ere landu izan ditut. Erakusketa-aren batean teknika bereziekin egindako argazkiak erakusten ditudanean, galdetzen didate ea Photoshopekin

egin ditudan, baina ez, kimikarekin sortutako argazkiak dira. Gertatzen dena da teknika horiek egin ahal izateko behar diren produktuak desagertu egin direla. Argazkilaritza digitalak aurrera egin du eta analogikoa momentu batean ia-ia desagertu egin zen. Nik argazkiak zuri-beltzean egiten jarraitzen nuen, laborategian, baina ‘cibachrome’, ‘colorvid’ eta horrelako teknikak egiteko produktuak desagertu egin ziren. Oso teknika bereziak dira. Kolore fantastikoak lortzen dira horien bitartez.

Orduan, zuk ere argazkiak guztiz digitalean egitera egin zenuen jauzia?

Gehienetan digitalean ari naiz, baina batzuetan laborategira joaten naiz.

Zertan ari zara erosoan? Zer gustatzen zaizu gehien?

Laborategia, zuk egiten duzulako dena. Analogikoan makinak neutroak dira, baina digitalean tresnek (Photoshopek, adibidez) gauza pila bat egiten dituzte. Erabiltzen jakin behar dituzu, baina makinek gauza asko egiten dituzte eta laborategian ez, norberaren eskuak edo trebeziak du garrantzia. Photoshopa erabiltzen dut, baina gauzak lehen egiten nituen bezala egiteko. Esate baterako, argazkiak mozteko, iluntzeko, argitze-ko... Hori kimikoan egiten nuen eta gauza bera egiten dut digitalean. Photoshopekin ez dut ‘argazkilaritza faltsua’ egiten, edo gaur egun adimen artifizialarekin egiten dena. Badakit nola egin, baina hori ez da niretzat, ez da nire estiloa.



BIDEOA
IKUSTEKO

“Ezagutzen nauenak normalean ondo identifikatzen ditu nire argazkiak”

“Argazkilaritza analogikoa nahiko artisau-lana da, zuk zeuk egiten duzulako dena”

Zein esango zenuke dela zure estiloa?

Nire zuri-beltzeko argazkiak nahiko ilunak izaten dira eta baita gogorrak ere, hau da, kontraste handikoak. Ezagutzen nauenak normalean ondo identifikatzen ditu nire argazkiak.

Nolako aldea igartzen duzu hasierako eta gaur egungo argazkien artean?

Hasierako argazkietan oso oinarritzko gauzak egiten nekizkien eta asko nabaritzen da aldea. Ondo positibatzten, errebelatzen eta, batez ere, argazkiak ondo egiten ikasi nuen. Hasieran ez nekien ‘herenen erregela’ zer zen ere. Santurtzin ‘Bihotz gaztea’ taldea sortu genuen eta gutako batek bazekien zer bait, eta harekin ikasi nuen errebelatzen, eta abar. Eskuetan eduki nuen lehen argazkilaritza-liburua frantsesez zen.

Ikastea hain zaila izanda, zer zuen argazkilaritzak hain beste engantxatzeko?

Ez dakit, agian da zuk zeuk egiten duzula guztia. Argazkilaritza analogikoa nahiko artisau-lana da, zuk zeuk egiten duzulako dena.

Gogoratzen duzu zein izan zen zure lehen argazki-kamera?

Bai, gordeta daukat! Yashica Minister II modelo. Bigarren eskukoa erosi nuen eta sasoi hartan, 1962an, 2.000 pezeta balio zituen. Pila bat!

Zenbat makina izan dituzu?

Ufff... Eduki ditudan kamera analogiko guztiak gorde-ta ditut eta batzuk erabiltzen ditut oraindik. Bestalde, digitalak ere baditut: Nikon d700, bi Fuji, Sony bat... Gero, plaka-kamera bat dut estudioan.

Telefono mugikorrarekin argazkiak egiten dituzu?

Mendira banoa eta gauzaren bat polita iruditzen bazait, mugikorra erabiltzen dut, baina gauza handirik egin gabe. Gainera, telefonoak dena egiten du.

Gaur egun, argazkilari askok sare sozialak erabiltzen dituzte euren lanak erakusteko. Zuk ere erabiltzen dituzu?

Bai, Facebook batez ere. Instagramen ere baditut bilduma batzuk, baina ez zait gustatzen, Facebook hobeto. Jarraitzaile pila bat daukat.

Zurea erakustez gain, beste argazkilariek zer egiten duten ikusteko ere balio dute sareek.

Bai, eta gauza interesgarriak ikusten ditut. Beste asko oster... Argazkilaritza ikastaroak ematen ditudanean, ikasleei esaten diet ikastera etortzen direla, baina gauza batzuk ikasi arren ez direla argazkilari irtengo, argazkilariaz izateko asko ikasi behar delako. Oso prozesu luzea da. Gaur egun milioika irudi egiten dira, baina zenbat argazki? Telefonoarekin edo kamerarekin argazkiak bota eta bota gabiltza, baina zergatik egiten ditugu argazki horiek? Zertarako? Argazki asko eta asko



Lainoen gainetik eta azpitik Eibar nolakoa den erakutsiko digu Irigoienek gaur Topalekuan zabalduko duen erakusketan. EKHIBELAR

galdu egingo dira, jendeak ez baitaki zenbat argazki dituen hortik zehar.

Zure argazkiak, oster, Euskadiko Artxibo Historikoari emango dizkiozu.

Bai, hori da. Alde batetik, pena ematen dit; baina bestetik, ondo dago, ondo gordeko eta zainduko dituztelako. Nahiko zaharra naiz eta egunen batean hil egingo naiz, eta zer gertatuko da honekin guztiarekin? Azkenean dena botata edo desagertuta geratuko litzateke. Orain, Artxiboaren esku geldituko da guztia eta norbaitek argazki edo bildumaren bat erakusketa baterako erabili nahi badu, erabili ahal izango du.

Eibarren nolako argazkilaritza ekosistema dugu?

Santurtzitik etorri nintzenean, Eibarko Klub Deportiboan bazegoen argazkilaritza taldea, baina bi pertsona besterik ez zeuden. Ia desagertuta zegoen. Urtean lehiaketa bat prestatzen zuten, San Juan Saria uste dut, eta 1983an irabazi egin nuen. Ikastaro bat emateko proposatu zidaten eta horrela hasi nintzen eurekin. Lehenengo ikastaro horretako pare bat lagunek jarraitzen dute oraindik Deporrek taldean. Argazkilaritza analogikoa zegoen sasoi hartan eta Klub Deportiboan laborategi txiki bat genuen. Ikastaroak eta irteerak egiten jarraitu genuen, eta oso talde garrantzitsua bihurtu da. Esate baterako 2009an Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak saria

eman zigun elkarteen sailean. Harrezkero, taldean joan-etorriak egon dira, baina ulertzen dut. Lehen, Deporren laborategia edukitzea handia zen, zaila zelako norberak etxean laborategia edukitzea, baina argazkilaritza digitalekin, jendeak etxean egiten ditu lan horiek. Bestalde, Interneten ikastaroak eta horrelakoak daude eta jendeak pentsatzen du horrekin nahikoa dela, baina nik ezetz pentsatzen dut. Taldean asko ikasten da, baina jendea ez da etortzen, eta jende gaztea are gutxiago.

Argazkilaritza taldean zer egiten duzue?

Ikastaroak, irteerak, Argazkilaritza Maiatzean ekimena... Gainera, astean behin elkartzen gara Deporren, martitzenetan, eta egutegian ditugun ekintzak prestatzeaz gain, autoreak begiratzen ditugu, euren lanak aztertu, informazioa partekatzen dugu, gauzak nola egiten ditugun azaltzen diogu elkarri... Eskuzabal jotzen dugu.

Hainbeste argazki egin ondoren, inoiz ez duzu galdu pasioa?

Ez, inoiz ez. Argazki guztiak ondo pentsatuta daude eta, bat egiteko, agian egunak itxaron behar dituzu, probatu, berriz itzuli... Hori asko gustatzen zait. Ezin diot argazkiak egiteari utzi. Orain erakusketa hau zabalduko dut, baina badut beste serie bat martxan. Udan, Debako hondartzan egindako argazkiak dira. Hondartza zirko bat da.

Gilda Lehiaketa jokatu da aste honetan Euskeraz Primeran!-en eskutik

Martitzenean hasi eta atzora arte arte iraun du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Euskeraz Primeran! ekimenaren barruan, antolatzen duen Gilda Lehiaketak. X. edizio honetan herriko 18 tabernak hartu dute parte eta giro paregabea izan da, “herritar ugari ibili baita gilden ibilbidea egiten”, tabernari baten hitzetan. Eta gilda horiek guztiak probatzen eta baloratzen urteroko epaimahaia aritu da, Mireia Alonso, Josu Mugerza eta Xabier Albizuk osatutakoa. Ez dute lan erraza izango epaia ematerako orduan, izan ere “oso gilda onak probatu ditugu, tradizionalak zein berritzaileak, eta guztietan izan da na-



barmentzekoa osagaien kalitatea”, diote epaileek. Datozen egunotan jakingo dugu epaiaren berri. Bi sari epaimahaiaren eskutik etorriko dira, gilda tradizional onenari bata eta berritzaileenari bestea, eta hirugarren saria herritarrek erabakiko dute, tabernetan emandako botoen bitartez. Gainera, bozketan parte hartu duten herritarren artean bertoko produktuez osatutako otar ederra zozketatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Datozen egunotan emango ditugu ezagutzera saritu guztien izenak.

Zabalik dago “Tote bag” ikastaroan izena emateko epea

Atzoz geroztik zabalik dago “Tote bag” izeneko poltsak pertsonalizatzeko ikastaroa. Otsailaren 24rako, martitzena, antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Illunabarrian programaren barruan tailerra eta, bertan, oihalezko poltsak nola kustomizatu ikasteko aukera izango da. Horretarako, parte-hartzaileek, arroparako errotuladore bereziak erabiliko dituzte eurek sortutako plantillak

erabiliz. Ikastaroan 7 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, ...eta kitto! Euskara Elkartean izango da (Urkizu 11 solairuartea) eta ordu eta erdi iraungo du (18:30-20:00).

Izena otsailaren 20ra arte eman daiteke, elkartea@etakitto-ra mezua bidaliz, telefonoz deituz (943200918) edo www.etakitto.eus webgunean. Izen-emateak 10 euro balio du, 7 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat.



The background of the entire page is a vibrant, out-of-focus image of colorful confetti (red, blue, orange, purple, yellow) scattered across a light surface. On the right side, there is a partial view of a person wearing a colorful, possibly floral or feathered costume, adding to the festive atmosphere.

BADATOZ ARATOSTEAK, NEGU GRISARI KOLOREA EMATEKO

Aurreko astean aurkeztu zuen Eibarko Udalak aurtengo Aratosteetarako programazioa, Eibarko Udal Margo Eskolan egindako prentsaurrekoan eta, horrekin batera, aurtengo Aratosteak iragartzeko kartela eman zuten ezagutzera: Madrilen bizi den Franceso Minopiliren “Bat eginda” izenekoak irabazi du Udaleko Kultura sailak antolatutako leihaketa.

FAUSTO
kafetegia
Karmen kalea, 1

CAFE EIBAR
J. Etxeberria, 12

ESKU ONENETANI!



KALAKA ETA BUENOS AIRES



Bazen behin... gau ahaztezin bat

TXOKO

Giro alaia
Aratosteetan

UNTZAGA PLAZA, 10

UNTZAGA PLAZA, 8
TEL. 843670818

La Espuela
FOOD & DRINK

Asteburu honetan hasita, otsailaren 7tik 17ra bitartean ospatuko dira aurten Aratosteak eta, egitarauaren aurkezpenean Jon Iraola alkateak, Patxi Lejardi Jaietako zinegotziak eta Andoni Zabala Kultur zinegotziak azaldu zutenez, “jarduera-programazio zabal bat egongo da, musika, dantza eta tradizioa uztartzen dituzten proposamenekin”. Egitaraua Eibarko Udalak antolatu du, Usartza Txistulari Bandaren, Galiziako Etxearen, Kezka Dantza Taldearen eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen lankidetzarekin.

Jaiak otsailaren 7an (zapatua) hasiko dira, **Kezka Dantza Taldeak** antolatzen dituen **koko-dantzekin**. Errebalen 08:30ean bildu eta, bertan lehen agerraldia



egin eta gero, Mandiola eta Otaola-Kiñarra auzoetan ibiliko dira, 09:00etatik 14:00etara. Arratsaldean Eibarko kaleetan egingo duten kalejira, berriz, Eibarko Klub Deportibotik abiatuko da (18:45ean), eta herriko kaleetan eskainiko dituzte koko-mokoen dantzak eta abestiak, Mauxitxa Txarangaren laguntzarekin. Erdi-guneko kaleetan ibili ondoren, Deportiboan bertan amaituko dira koko-dantzak, 21:00ak aldera.

Otsailaren 12an (Eguen Zuri), 15:15ean **kalejira** egingo da **eskoletako taldeekin**; 17:00etan, Jainagaren trikitilariak kalejira egingo dute, Urkizutik

 **albert**
Armagin, 1 943 383 177
taberna



Untzagara; aldi berean, Untzagan, erromeria egingo da, Lisker taldearekin, eta Astixaren eskutik **haurrentzako makillaje eta maskara tailerrak** egingo dira, karpan. Eta As Burgas Galiziako Etxeak antolatuta, **mozorro-lehiaketa** egingo dute, 19:00etan.

Kaldereroen kanta euskaraz

Otsailaren 13an (Barixaku Erregularra), **kaldere-oren kalejira** egingo da, Urkizutik Untzagaraino (20:00etan). Kezka Dantza Taldeak, Ustekabe fanfarreak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak eta herriko beste talde batzuek hartuko dute parte bertan, jakina, animatzen diren herritar guztiekin batera. Kalejira amaitu aurretik, 20:30ean, **Aratosteetako pregoia** irakurriko du Sofia Machin Eibarko abeslariak Eibarko Klub Deportiboko leihotik, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta.

Iazko Aratosteetan, Eibarko kaldereroek euskaraz abestu zuten lehen aldiz, eta Kezka Dantza Taldeak aurreratu dutenez, aurten ere hala egingo dute: "1930eko hamarkadan atera ziren kaldereroak lehen aldiz Eibarren, Donostiako kanta Eibarrera ego- kituta. Donostian kaldereroen konpartsa 1884koa da, eta Raimundo Sarriegiren doinuek eta Adolfo Combaren hitzek osatzen dute erreperorioa. Iaz gure erara euskaratu eta dagoeneko haiek kantatu genituen. Hungariar kanta salbu, hori hungariar itxuran dago





TOPA-LEKU
taberna

Pintxoak,
ogitartekoak,
pikoteoa, catering

Ego gain, 2
T. 943 55 87 28

Rio de Janeirotik
zuzenean, parranda hutsa



Ondo pasa
Aratosteetan!

Arkupe
Taberna



GUREAN GIROA...

Laurel
&
Hardy
Pub

...ziurtatuta dago!



Etorri
gurera!

Ondo
pasa!

DIANA

COMEDY CLUB (AZA Y BEJA)



**GORA
GURIDI**

Ondo pasa
Aratosteak!!!



idatzita, baina ez omen da hungariarra ere ez, asma-
tutakoa baizik, alemaniar hitz batzuekin hungariar
faltsua omen da". Eibarko kaldereroetan kantatuko
dituzten euskarazko hitzak denon eskura jarri ditu
Kezkak bere webgunean, nahi duenak ikasi ditzan.

Aratoste Zapatua kuadrillen kalejirarekin hasiko da
Otsailaren 14an (Aratoste Zapatua), 12:30ean,
kuadrillen kalejira hasiko da. Eibarko kaleetatik
(Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Zuloagatarren,
Toribio Etxebarria) ibili eta gero, Untzagan amaituko
da, Ustekabe eta Sin Juicio fanfarreek lagunduta.
Kalejira-lehiaketarako izen-ematea zabalik egongo
da otsailaren 11ra arte. Halaber, photocalla egongo da
Untzagan, 12:30etik 14:30era; puzgarriak Errebalen,
16:30etik 19:30era; eta txokolatada, 18:30ean. Txi-
kientzat, **berbena** egingo da Untzagan, 19:00etatik
21:30era, Bada Giro taldearekin; kuadrilla, taberna
eta kartelen lehiaketetako **sari-banaketa** 19:30ean
egingo da. Gainera, musika-giroak jarraitu egingo
du, Latuna Bando txarangarekin, eta 23:30etik
aurrera berbena egingo da Bada Giro taldearekin.

Otsailaren 15ean (Aratoste Domeka), kalejira
egingo da 11:00etan Usartza Txistulari Bandarekin,
eta 17:00etan playback lehiaketa izango da umeen-
tzat, Untzaga plazan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak



Trinkete

Zatoz gurekin
Aratosteak ospatzera!

943701323

antolatuta. Eguna amaitzeko, DJ Arnoren emanaldia egongo da 18:30ean, Untzagan.

Otsailaren 17an (Aratoste Martitzena), Astixak antolatutako haur-jolasak izango dira Untzagan 17:00etatik 18:30era, eta gero sardina txikiaren entzierrua, Jainagaren trikitilariekin.


Aratosteetarako lehiaketak martxan

Aurtengo Aratosteak iragartzeko kartel lehiaketan 76 lagunek hartu dute parte, eta helduen mailako irabazlea aukeratzeaz gain, haurren artean beste bi lan saritu dituzte: Ibai Alfaye Sanz, “Buruhaundiaren buruan” lanarekin (11-14 urte), eta Nora Garate Ariznabarreta, “Gordetako Aratosteak” izenburukoarekin.

Horrekin batera, aurten ere beste bi lehiaketa antolatu ditu Udalak Aratosteetarako: Aratoste Zapatuko kuadrillen kalejira-lehiaketa, eta jaietarako ondoen



apaindutako taberna lehiaketa. Batean zein bestean parte hartzeko epea zabalik dago (otsailaren 11ra eta 10era arte, hurrenez hurren), eta izena emateko Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioa bete behar da. Lehiaketen inguruko xehetasunak ere bertan kontsultatu daitezke.





IMANOL MAGRO

Untzaga zinema, Idealistan salgai

Bada bai, artikulua honen titularrak zure ikusmina piztu badu, jakin ezazu hala dela: Untzaga dorrearen errailetan ezkutaturiko zinema aretoa salgai dago etxeak salerosteko hainbat internet ataritan. 1.650.000 euroan eros daiteke eta saltzaileak dio iragarkian hainbat erabilera izan ditzakeela: merkataritza, kultura, bulegoak, kirol ekipamendua...

Nire, eta askoren, haurtzaroko eta nerabezaroko aisialdiaren funtsezko eszenatoki izan zen aretoa 2009an itxi zuten. Zaila egiten zait sinestea egun 25 urteen bueltan dabiltzan eibartarrek kostata gogoratuko dutela nolakoa zen. Areto oso dotorea da, aldapa gorakoa, eserleku erosoekin eta bi margolan erraldoi ditu pantailaren alde bakoitzean. Bi hitzetan: zinema eder askoa.

Hamazazpi urteotan isilik eta ilunpean egon da mila metro koadroko eta lau solairuko hutsune hori, norbaitek noizbait irekiko zain. Zurrumurruak egon dira haren inguruan, bateko garajeak egiteko asmoa, kirol denda handi batek ikusi omen zuela, eta oroitzen dut bertan Kafe Antzoki bat irekitzeko proposamenen bat. Gehiago egongo ziren. Baina ezer ez da gauzatu.

Pentsatu izan dut agian udaletxeak erosi beharko lukeela, edo desjabetu. Harritzen nau zein erraz desjabetu daitezkeen baserritarren lurak herri lan handiak egiteko eta zenbat kostatzen den eraikin edo jabetza fisiko bat desjabetzea. Boteprontoan, bertan udalategi, ludoteka, haurreskola edo halako zerbait jartzea datorkit burura. Kiroldegi txiki bat? Baita ere. Kokapena ezinhobea da.

Baina Untzaga zinema hutsean pentsatuz, gogoratu dut Rialto zena ere hutsik eta itxita dagoela. Baita El Corte Ingleseko eraikina ere, edo Santaineseko komentua. Gabilondoko eraikin eraberrituan zerbait jarri beharko da eta Ipuruako merkatu plazak bere ahal osoaren azpitik dihardu. Ziur nago, tailerrez gain, hutsik edo gutxi erabilia dagoen eraikin bat edo beste ahaztuko nuela. Eta hemen nago ni, berriz ere zalantzan, ea arazoa zein den: eraikin huts asko dagoela edo haiek baliatzeko ideia gutxi.

“Udalak erosi beharko luke, edo desjabetu. Zein erraz desjabetu daitezke baserritarren lurak herri lan handiak egiteko eta zenbat kostatzen da eraikin edo jabetza fisiko bat desjabetzea”



Aste honetan eskualdeko bertsolaritza izan dugu hizpide. Debabarreneko bertsolaritzaren egungo egoeraren berri ematea izan da helburua.

Ermua, Eibar, Soraluze, Mendaro, Mutriku eta Itziar-ko bertsolariek hartu dute parte saioan, eta bakoitzari eskualdeko beste herri baten inguruan abestea egokitu zaio. Batzuek "puntuka" aritzeko erronkari heldu diote; beste batzuek, berriz, "mokoka" jardun dute.

ALBISTEAK (ETA KITTO.EUS)

INGUMA euskal komunitate zientifikoaren datu-baseak Interneteko ARGIA saria jaso du.



Azken inputazioen ostean, arreta "benetako arazotik ez desbideratzeko" eskatu du Zaldibar Argituk.



Ots 06

ERAKUS.	JOSE LUIS IRIGOIENEN ARGAZKI ERAKUSKETA	19:00 21:00	TOPALEKU (EIBAR)
IRAKUR.	"ERAIKUNTZARAKO MATERIALA" LIBURUA IRAKURLE KLUBEAN	19:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)
BERTSO.	BERTSO AFARIA	20:30	GAZTETXEA (ELGOIBAR)
ANTZER.	"TRAJEA" ANTZEZLANA	19:00	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
TXAPELK.	EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA DEBAKO KANPORAKETA	22:30	ZALBURDI TABERNA (DEBA)
MUSIK.	PUÑO DRAGÓN	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
MUSIK.	NØRBAC	20:30	KARIKATO (ERMUA)

Ots 07

DANTZA	AMAMA	17:00	ANTZOKIA (ERMUA)
ANTZER.	SEMAFOROA (MULTIMEDIA)	17:00	COLISEO (EIBAR)
JAIA	KOKO DANTZAK	08:30 18:30	ERREBALETIK HASITA (EIBAR)
IKAST.	AHALDUNTZE SAIOA GURASOENTZAT	10:00	AITA AGIRRE (ELGOIBAR)
JAIA	SANTA ESKEA	09:00	BOLATOKIA (ELGOIBAR)
JAIA	SANTA ESKEA	08:30	KONTZEJUPEA (SORALUZE)
JAIA	SANTA ESKEA	08:30	ENPARANTZA (MENDARO)
JAIA	SANTA ESKEA	09:00	LUARDO (MUTRIKU)
JAIA	SANTA ESKEA	10:00	PETRILA (MALLABIA)
JAIA	TXITXIBURDUNTZIA	19:00	PARKEA (MALLABIA)

Ots 08

MUSIK.	ANAUT	19:00	COLISEO (EIBAR)
--------	--------------	-------	-----------------



Asteburua beteta dator Deporreko pilotarientzat

E.B. Asteburu honetako pilota jardunaldiak hitzordu ugari ekarriko ditu, bai Astelena frontoian, bai etxetik kanpo jokatuko duten Eibarko pilotarientzat. Gaur, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, eskuzko bi partida izango dira ikusgai. Lehenengoan, Errendimendu mailako Lizarralde eta Saez eibartarrek Zumarragako Beloki 2 bikotearen aurka jokatuko dute Gipuzkoako binakako txapelketako lehen faseko azken jardunaldian. Ondoren, Varona eta Del Rey jubenilek Udaberri Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko dute Bergarako bikotearen kontra. Bestalde, etxetik kanpo ere izango da jarduerarik: Acha eta Uriarte alebinak Bergaran ariko dira, Guinea eta Lombrana Mutrikun, Osa eta Urain Errenterian, eta eskuzko beste hainbat partida jokatuko dira Idiazabalen, Tolosan, Beasainen eta Zumarragan zapatuan.



Ipuruia klubekoek Gipuzkoako Amateur Txapelketa hasi dute

E.B. Joan den asteburuan hasi zen gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Amateur Txapelketa eta Ipuruako klubeko hainbat gimnasta aritu ziren bertan, emaitza esanguratsuak lortuz.

Gorane Mendibe, Lia Romano eta Naroa Perez irabazle izan ziren Senior B, Senior A eta Master B kategorietan, hurrenez hurren. Gainera, Lur Bilbao eta Irati Unamuno 2. sailkatu ziren Kadete B eta Jubenil A kategorietan, hurrenez hurren.

Eibar B xake taldeak beste garaipen bat lortu du

E.B. Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketaren 4. txanda jokatu da asteburuan. Eibarko Klub Deportiboko taldeei dagokienez, hirugarren mailan jokatzeko duen Eibar B-k 1-3 irabazi zion Agustin de Leiza C-ri. Maila berean ari den Eibar C-k, ostera, 4-0 galdu zuen Zalek B-ren aurka. Maila gorenean ari den Eibar A-k, bestalde, Gros D izan zuen arerio eta 3-1 galdu zuen donostiarren aurka.



Eibar Rugby Taldea geldizein dabil

E.B. Eibar Rugby Taldearen gizonen lehen taldeak denboraldi ia perfektua egiten dihardu. 11 jardunaldi jokatu ondoren, hamar irabazi eta bakarra berdindu du, eta lider sendoa da bigarrenari sei puntuko aldea aterata.

Zapatuan, Zaisa Txingudi hartu zuen lokaztutako Unbe zelaian eta,

arerio gogorra izan arren, nagusitasuna erakutsi zuten 32-5 gailenduz. Lehia berezia izan zen, ETB-n zuzenean ikusteko aukera egon baitzen.

Hurrengo partidua datorren aste-ko asteburuan jokatu du ERT-k. Neurketa erabakigarria izango da, Zornotza bigarren sailkatuari egingo baitio bisita.



Xaniari irabazita, Bar Marem bigarren da orain

E.B. Malape Tabernak joan den asteburuan lortu zituen futbol zale-tuaren liga irabazteko behar zituen puntuak, baina helburua lortuta ere, ez du erritmoa jaitsi. Asteburu honetan Garajes Garcia izan zuen arerio eta 1-0 gailendu zitzaion Danielen golari esker.

Beste neurketen artean, sailkapene-ko 2. eta 3. sailkatuen arteko lehia nabarmendu zen. Xania Tabernak bere postuari eutsi nahi zion atzetik zeukan Bar Maremen aurka, baina 1-3 eman zuen amore eta orain Marem jarri da bigarren.

Beheko postuetan, Baserrik punturik lortu gabe jarraitzen du 14 jar-dunaldi jokatu ondoren.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 39 puntu
2. Bar Marem, 29 puntu
3. Xania Taberna, 27 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 26 puntu
5. Kalaka Buenos Aires, 24 puntu
6. Adahi Etxegi, 19 puntu
7. Garajes Garcia, 19 puntu
8. Limpiezas Rueda, 6 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Asteburua ezin hobea eduki zuten Urbat Urkotroniken taldeek

E.B. Zaila izango da asteburu ho-berik bizitzea Urbat Urkotronik waterpolo klubarentzat. Ia talde gehienek lortu zituzten garaipenak, batzuk meritu handikoak.

Gizonezkoen seniorren taldeak, adibidez, sailkapenean postu bat aurretik egun Tenerife izan zuen arerio Donostiako Paco Yoldi kirol-degian eta, giro ikusgarriarekin, 17-13 gailendu zitzaion. Ander Treviño

izendatu zuten partiduko jokalaria garrantzitsuena. Horrela, eibarra-rrak kanariarren aurretik jarri dira sailkapenean, hurrengo faserako morala hartuz.

Emakumezkoen seniorrek, ostera, denboraldi bikaina egiten dihardu-te eta aurreko asteburuan berretsi zuten maila hori, 14-12 irabazi bai-tzioten CDW Urgara Txingudiri, Orbea kiroldegian.

Erronka handiak Eibar Eskubaloiarentzat

E.B. Asteburu honetan erronka handiei egin beharko diete aurre Eibar Eskubaloia klubeko talde nagusiek, bai emakumezkoetan, bai gizonezkoetan. Emakumez-koen Zilarrezko Ohorezko Mailan, taldeak Bera Beraren aurka joka-tuko du, txapelketako aurkari in-dartsuenetakoko baten kontra, bihar, 18:45ean, Ipurua kiroldegian. Do-nostiako taldea sasoi onean iritsiko da neurketara, eta ligako plantila osatuenetakoa du.

Gizonezkoen Lehen Naziona-lean, Romoren aurkako partida garrantzitsua jokatu du Eibar Eskubaloiak, bihar, 19:00etan, Ipuruan. Bi taldeak sailkapenaren goiko aldean daude, eta puntuak funtsezkoak izango dira. Romok bigarren postua sendotu nahi duen bitartean, etxeko taldeak badaki ezin duela hutsik egin borrokan jarraitu nahi badu. Ikusleen ba-besarekin, bi puntu oso garrantzi-tsu lortzea izango dute helburu.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Granada (bihar, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Zaragoza - EIBAR (bihar, 18:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Madrid B (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Zaragoza B - EIBAR B (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Aretxabaleta (bihar, 12:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

Zumaia - URKI (etzi, 16:00)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

Idiazabal - EIBARTARRAK (etzi, 12:00)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - Oberena (etzi, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

Laudio - EIBAR B (etzi, 18:15)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Arrupe (bihar, 15:30)

FUTBOL-ZALETUA

• Malape - Marem (bihar, 09:00)

• G. Garcia - Adahi Etxegi (bihar, 10:30)

• Xania Taberna - Bergara Pn. (etzi, 09:00)

• Baserri - Limpiezas Rueda (etzi, 10:30)

• Atsedena: Kalaka Buenos Aires

ESKUBALOI

Zilarrezko Maila (em)

E. ESKUBALOI A - Bera Bera (bihar, 18:45)

1. Maila Nazionala (gi)

EIBAR ESKUBALOI A - Romo (bihar, 19:00)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

Egia - E. ESKUBALOI A B (bihar, 18:00)

WATERPOLOA

2. Maila (gi)

Tenerife Echeyde - URBAT (etzi, 12:30)

Euskal Herria Liga (em)

Claret Askartza - URBAT (bihar, 12:30)

Euskal Herria Liga (gi)

WP Donostia - URBAT (bihar, 15:30)



Etxean baino hobeto, inon ez

E.B. Aski ezaguna da Jekyll dokto-rearen eta Hyde jaunaren istorioa, eta gizonetzkoen Bigarren Mailan jokatzeko duen SD Eibar-ek ondo ordezkatzeko du hori. Etxetik kanpo ligako talderik txarrena den bitartean, onena da etxean. Beltzak ikusten ditu bidaiatzeko duenean, baina berri ona da hori etxean bi partidu jarraian tokatu zaionean, garaipenak lortu baititu horrela:

Orain dela hilabete Real Valladoliden eta Mirandesen aurka bi garaipen jarraian lortu zituen etxean, eta joan den astean Almeriari irabazi ondoren, domekan Real Sportingi gailendu zitzaion, 1-0.

Zaragozan zapatuan

Gauzak horrela, Beñat San Josek zuzentzen duen taldeak arnasa hartu du sailkapenean eta orain sei puntura ditu jaitziera postuak. Gainera, bihar, 18:30ean, Real Zaragozari egingo dio bisita (21. postuan dago 22 punturekin).

La Romareda zelaia obretan dagoenez, Zaragozak Ibercaja zelaian

jokatzeko ditu orain bere neurketak eta, "aforo kontuengatik" (20.000 lagun sartzen dira), SD Eibarri ez dizkio sarrerarik emango zale gorriurdienekin partidua zuzenean ikusi ahal izateko.

Aldaketak taldean

Zapatuan berebizikoa izan zen Jon Mikel Magunagoitiak egindako lana, meritu handiko geldiketarekin baitzituena talde armagina markagailuan aurretik zihoanean. Behin partidua amaituta, taldekideen besarkadak jaso zituen (baita airean eraman ere) eta elastiko berezia jantziz zuen, 2027 zenbakiarekin. Izan ere, Zornotzako atezainak 2027-urtera arte luzatu du kontratua.

Leo Buta portugaldarrak, bere aldetik, talde armagina laga du neguko merkatu honetan, SD Eibar eta Udinese akordio batera iritsi ostean. Buta Italiako taldetik iritsi zen udan eta protagonismoa izan zuen lehen partiduetan, baina azken neurketetan San Josek ez du kontuan izan eta Italiara itzuli da berriz.

Kirol albiste gehiagore webgunean



“Eibarren antzezteak nolabaiteko kilimak sortzen dizkit, gozamenagatik”

IMANOL ARIAS • Aktorea



Etxean aritzea bezalakorik ez dago. Eroso, ezagutzen duzun kodeekin, aurpegi ezagunez inguratuta, bero. Sentsazio horrekin irtengo da Coliseoko eszenatoki gainera Imanol Arias otsailaren 10ean eta 11n ‘Mejor no decirlo’ antzezlana eskaintzera. Etxean, ermuarra izan arren Unibertsitate Laboralean eman baitzituen lehen pausoak antzerkiaren munduan, Narruzko Zezen taldearekin. Eta hori, goia ukitu arren, ez da ahazten.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Antzeztu baino lehen, hilaren 9an, 19:00etan, Irene Hernando aktore eibartarrarekin solasaldia izango du ‘La casa’ izenburupean, XLIX. Antzerki Jardunaldiari hasiera emanez. Izan ere, mundu osoan zehar mila proiektu arrakastatsutan ibili arren, beti itzultzen da etxera.

Eibarrera itzultzen zara antzerkiarekin, dena hasi zen tokira. Nola gogoratzen duzu antzerkigintzan lehen pausuak eman zituen Imanol hura?

Antzerkiarekin zoratuta nengoen, ia-ia gaixorik. Oso gazte hasi nintzen antzeztan Cosme Cortazar aktore eta artista handiarekin, baina Unibertsitate Laboralean trebatzeko aukerak antzerkian aritzeko lehen tresnak eman zizkidan. Juan Ortegararen irakaspenak oso zentzudunak izan ziren, horretarako talentu handia dauka. Askok lagundu zidan ondoren Madrilen aurkitu nuenari aurre egiteko. Oso lasai iritsi nintzen Madrilera, jakinda edozein oztopo ez zela gaindiezina izango. Hau da, inoiz ez nuela amore emango nahi nuena izateko: aktorea. Ez nuen bestelako espektatibarik, beraz, gauzak ia konturatu gabe iritsi zitzaizki-



dan. Dena nahiko ondo irten zen, Madrilera joan zen jende askori gertatu zitzaion bezala toki eta momentu egokian iritsiz gero. Gauzak egiten hasi nintzen, hortik beste batzuk irten ziren eta horrela igaro dira 50 urte. Orduan, Eibarrera iristea, batez ere etxera etortzea izaten da beti. Gabonetan ere egon nintzen bertan, buelta bat eman nuen, pare bat ardo hartu eta etxean sentitu nintzen. Eibarren antzezteak nolabaiteko kilimak sortzen dizkit, baina ez urduritasunagatik, baizik eta bertan egotearen gozamenarengatik.

Zergatik erabaki zenuen Madrilera joatea? Nola gogoratzen duzu erabakia hartzeko une hori?



Maria Barranco aktorearekin aritzen da 'Mejor no decirlo' antzezlanean. JAVIER VANAL | PENTACIONES

Unibertsitate Laboralean nengoen lehen urtearen amaieran edo bigarrenaren hasieran, ez dut ondo gogoratzen, antzerki jardunaldiak antolatzen zituztenez, antzerki-taldeak etortzen ziren. Talde independenteak izaten ziren (Tavano, Teatro de La Rivera, Els Joglars...) eta niri tokatzen zitzaidan harrera egitea. Gero, Juan Ortegak elkarte gastronomiko batera eramaten zituen afaltzera eta eurekin joaten nintzen. Behin, Strindbergen 'Acreedores' lana eskaini zuten, Juan Diego protagonista zelarik, eta nik egin nion harrera. Narruzko Zezen taldearekin Sari Nazionala irabazi berri genuen eta, Juan Diegori hori esan nionean, eszena bat egiteko eskatu zidan. Egin nion eta gauean elkartera joan ginen afaltzera. Juan Diego handia zen, maisua, eta oso hurbila izan zen nirekin. Berba asko egiten zuen eta afari horretan esan zidan: "Eta egin duzun kaka horrekin irabazi duzu Sari Nazionala? Orain zerbait zarela usteko duzu, ezta?", eta nik, "ez, ez". Kontua da berandura arte geratu ginela afaltzen Eibarren, eta ez nuenez Ermura itzultzeko modurik, berak eraman ninduen autoz etxera.

Ez da txofer makala!

"Juan Ortegaren irakaspenak oso zentzudunak izan ziren. Asko lagundu zidan ondoren Madrilén aurkitu nuenari aurre egiteko"

Ongarain bizi nintzen eta berak: "Hemen bizi zara? Ondo, hasiera ona da". Nirekin etxera igo zen, oso berandu zenez gurasoak kezkatu ez zitezen. Etiketa beltzeko Johnny Walker botila bat ikusi zuen (aita marinela zen eta bidaietatik ekarritako altxorak zituen gordeta) eta nire inguruan gehiago jakiteko demaseko gogoa sortu zitzaion. Berbetan hasi ginen eta aita esnatu zen. Nola harritu zen egongelan Juan Diego ikustean! Sasoi hartan ezaguna zen dagoeneko, baina aitak zera esan zion: "Arraioa, Juan Diego, ia Johnny Walker botila osoa edan didazu!". Aitari nire aktore izateko nahiak beldurra ematen zion, zalantza asko

Elkarrizketa osoa



baitzegoen horren inguruan. Ezin banintzen delinea-tzailea izan (oso txarra nintzen), behintzat 'Denborak eta Metodoak' delakoa egitea nahi zuen. Gutxienez amantal zuri bat janztea, hori zen bere ametsa. Orduan, nire etorkizunari buruz berbetan hasi zen Juan Diegorekin eta honek Madrilera joateko esan zidan. "Azkenean Manu Madrilera joango da. Buruan hori sartzen bazaio, egingo du", esan zuen. "Eta zuk lagunduko diozu?", nire aitak, eta Juan Diegok ezetz: "Nik ez diot inori laguntzen. Madrilera badoa eta deitzen badit, kasu egingo diot, baina hori ez da laguntzea".

Eta deitu zenion?


Ez, inoiz. Madrilera joan nintzenean antzerki-eskolan hasi nintzen eta figurazio paperak egiten hasi nintzen Zarzuelan Jose Tamayorekin, eta honek Juan Diegorekin 'La vida es sueño' antzezlanarekin egin zuenean, berarekin bi esaldi elkartrukatzeko zituen pertsonaia egiteko aukeratu ninduen Tamayok. Orduan elkartu nintzen berriz Juan Diegorekin eta zera esan zidan: "Arraioa, nolako potroak dituzun. Tamayori nire laguna zarela esan diozu?". Eta nik: "Ez, ez diot ezer esan, Juan". Eta berak: "Hortik zehar ez esan nire laguna zarenik, oraindik nire laguna egin behar zara". (Isilunea) Hil baino hilabete batzuk lehenago esan zidan ezin zuela 'El coronel no tiene quien le escriba' antzeztu. "Ez esan gaizki nagoenik, ez bainago gaizki, baina ezin dut", esan zidan, eta ea ordezkatzeko nuen. Orduan itzuli nintzen antzerkira.

Beraz, Juan Diegok demaseko eragina izan du zure ibilbidean, ezta?

Mariana Galiana, Juan Echanove eta ni neu Juan Diegorengandik hurbil geunden eta 'Circuitos Diego' esaten ziguten, inoiz Juan Diegorekin gurutzatu eta bizitza aldatu zigulako.

Orain ia mundu guztiak ezagutzen du zure ibilbidea, demaseko arrakasta lortu duzu, baina hasierak beti daude zalantza beteak. Nola kudeatu zenuen egoera hura?

Zortea ez da bakarrik toki eta une egokian egotea, baizik eta zugar naturalak diren bi elementu ez askatzea: bata,



ziurgabetasunik ez izatea da; eta bestea, onena zarella pentsatzea. Ziurgabetasuna ez da bakarrik telefonoak ez jotzea, izan daiteke ez jakitea zer gertatuko den edo ez jakitea zer geratuko den egiten zaren horretatik. Izan ere, gu aktoreak gara baina zuzendariak hor daude eta zuk egindakoa norbaiten esku lagatzen duzu, egin duzun horrekin zer gertatuko den jakin barik eta, gainera, zerbait gehitzeko gogoarekin. Sasoi batean, bi pelikula baino gehiago egitea arriskutsua zen, eta gogoratzen dut behin lau egin nituela eta Victoria Abrilek bost. "Tira, Frantziara joango naiz, bostetik hiru oso eskasak izango direlako, bestea hala-nolakoa eta bakarra ondo irteten bada... Baina ez bada irteten?", esan zidan. Bigarren elementuari dagokionez, ez nire inguruan ez nire barrenean ez dut entzun onena naizenik. Beraz, hegan pasatu zitzaidan prozesu hura. Gainera, 80. hamarkada hasieran iritsi nintzen Madrilera, Francok urte gutxi zeramatzan hilda, kontzeptu aldaketa egon zen, eskolan irakasleria guztia aldatzeko greba egin genuen, ikastaroak ekarri genituen (Atahualpa del Cioppo, Hector Alterio eta Jose Luis Gomez, besteak beste)... Nire bizitzaren parte hori bizitza partikularrekin konpentsatzen saiatu naiz, asko ez sufritzeko, luzea eta bizia izan delako.



Azpilikuetairen grabatuak Bilboko Museoan ikusgai

S.H. Apirilaren 19ra bitartean Jose Antonio Azpilikueta eibartarraren grabatuak ikus daitezke Bilboko Arte Ederren Museoan, *After Hopper* izeneko erakusketan. Edward Hopper estatubatuarren pinturan oinarrituta Azpilikueta egindako dozena bat estampa daude ikusgai eta, Jose Ignacio Olabe arte-editorearen dohaintzari esker, Azpilikuetairen lan horiek museoako funtsen parte bihurtu dira. Horiekin batera, Jazinto Olabe margolari eibartarraren biloba den editoreak hirurogeita hemezortzi obra eman dizkio Bilboko Museoari, 2022. urteaz geroztik. Hirurogeita hamar urte betetzen zituela-eta, Olabek hamabi marrazki eskatu zizkion Azpilikuetai, Edward Hopperren margolanak oinarri hartuta, berak idatzi eta editatutako beste horrenbeste kontakizuni laguntzeko. 2024an egindako hamabi grabatu horiekin batera, zirriborroak, hainbat *exlibri*, Olaveren *After Hopper* (*Gau amerikarra*) liburuaren kopiak... ikus daitezke.

Snapseed aplikazioari buruzko tailerra egingo da martitzenean



S.H. Eibarko Klub Deportivoaren Argazki Taldeak mugikorreko argazki-edizioari buruzko tailerra antolatu du otsailaren 10erako, martitzenerako, 19:00etan, klubaren egoitzan. Saioan Snapseed

aplikazioaren bidez argazkiak editatzeko aukerak azalduko dituzte, “bai edizio sinpleak egiteko, bai emaitza landuagoak lortzeko”. Interesa duen edozeinek eman dezake izena, argazkilaritza@deporeibar.com helbide elektronikora idatzita.



Los Zopilotes Txirriaos biharko Gazte Egunean

S.H. Ekainean egin ohi den kuadrillen arteko IPQ Futbol 7 Txapelketaren 5. urteurrena ospatzeko, zerbait berezia prestatu nahi dute antolatzaileek, eta diru pixkat lortzeko, bihar zaturako Gazte Eguna antolatu dute IPQ kuadrillakoek, Udalaren laguntzarekin. Egun osorako egitaraua antolatu dute, Untzagako karpan. Antolatzaileen berbetan, “12:00etan txosna zabalduko dugu, eta egun osoan egongo da martxan. Musika, pintxoak, tragoak... Giro ederra egongo da”. Horrela, 19:00etatik aurrera, hiru musika emanaldi egongo dira. Hasteko, Rock You, beste talde batzuen bertsioak egiten dituen taldea arituko da. Gero dantzak egongo dira eta, ordu erdiko atsedenaldiaren ondoren, Los Zopilotes Txirriaos talde nafarraren kontzertua hasiko da, 23:00etan. Eguna biribiltzeko, DJ Rokak jarraituko du gaua girotzen, goizaldeko 04:00ak arte.

Begoña Atutxak jasoko du Mercedes Kareaga ikerketa-beka

S.H. Begoña Etxenagusia Atutxaren proiektuak eskuratu du II. Mercedes Kareaga ikerketa-beka. Ikertzaileak bigarren eskuratu du beka, 2022ko lehen edizioa



ere berak irabazi zuen eta. 2025etik 2027ra bitartean garatuko du ikerketa-lana. Proiektuak tokiko, probintziako eta estatuko artxiboetan egindako lana aurreikusten du, baita prentsa historikoaren eta bibliografia espezializatuaren erabilera ere. Ikerketa-lana dagoneko martxan da eta, horren bidez, Eibarko maistren lanari buruzko informazio esanguratsua jaso nahi da. Bestalde, bekaren lehen edizioko emaitza, Mercedes Kareagari buruzko biografia, aurtun kaleratuko da.



Zinemaren hiru klasiko “Coliseo Klazinema” zikloan

S.H. Eibarko Udalak zine klasikoari eskainitako zikloa antolatu du, “zinemaren historiako pelikula onenentariko batzuk publikoarengana hurbiltzeko xedez”. Otsailaren 15ean, domekan hasiko da, Stanley Kubrickek zuzendutako *Laranja mekanikoa* (1971) pelikularekin. Filmak biolentzia erabiltzen duen gazte bortitz baten istorioa, eta haren jokabidea aldatzeko erabiltzen duten tratamendu esperimentalarena kontatzen du. Pelikulak askatasunari, moralari eta kontrol sozialari buruzko gogoeta sakonak planteatzen ditu. Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, “*Purpura kolorea*”, XX. mende hasierako Estatu Batuetan emakume afroamerikar baten bizitza ardatz duen filma proiektatuko dute. Zikloa apirilaren 12an itxiko da, Martin Scorsesearen *Gutariko bat* mafia italoamerikarrari buruzko film ezagunarekin. Saio guztiak 19:30ean hasiko dira Coliseo antzokian.



Logela Multimediaren “Semaforoa” bihar Coliseon

S.H. Bihar (zapatua, otsailak 7) *Semaforoa* lana taularatuko dute Coliseon, 17:00etan. Antzerkia, bideoanimazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen antzezlan multimedia hau familientzat pentsatuta dago eta emankizuna euskaraz izango da.



Pagatxaren zine-forum eta bideo-forum feministak

S.H. Pagatxa emakume elkartearen zine-forum feministaren saioa egingo da gaur (barixakua, otsailak 6), 18:30ean Portaleko areto nagusian. Jason Reitman zuzendariaren *Tully* filma emango dute eta, ondoren, solasaldia egingo da. Eta otsailaren 17an (martitzena), berriz, Emakumeen Istorioak bideo-forum saioa egingo da Andretxean, 17:00etatik aurrera. *Las constituyentes* (2011), Oliva Acostak zuzendutako dokumentala ikusi eta komentatuko dute, Patricia Perexek dinamizatu-tako saioan. 1977ko legeintzaldi konstituziogilean, diktadura frankistaren ondoren demokrazia ezartzera eraman zuen aldaketa politikoaren protagonista izan ziren 27 emakume diputatu eta senatariei buruzko dokumentua da eta, aitzindari horien esperientzia pertsonalaren bidez, emakumeek Espainian gaur egun arte izan duten parte-hartze politikoa aztertzen da bertan. Bietarako sarrera librea eta doan izango da.

Eguen Zuri Argazki lehiaketa

S.H. Arrate Kultur Elkartek XXVIII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du aurtenera. Aratosteekin zerikusia duten argazkiekin hartu daiteke parte, zuri-beltzean nahiz koloretan. Lehiaketa irekia da, parte hartu nahi duen edozeinentzat, eta egile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ditzake. Bai argazki bidalketa, bai izen ematea era digitalean egingo dira, eguenzuri2026@gmail.com posta helbidetan. Hiru onenentzat sariak banatuko dituzte: 160, 100 eta 60 euro, hurrenez hurren. Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 8a izango da. Argibide gehiago nahi izanez geo, Arrate Kultur Elkartean galdetu, 638284912 telefonora deitu, edo arratekultu@gmail.com posta helbidera idatzi.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		3	2				9
5	4	2		7	9	8	
1		7			6	2	
	5				8		7
7	8	6	9		4	3	2
3			7				8
		1	5			6	
		8	6	4		1	5
6					1	7	

2	4	1	6	8	5	3	9
5	1	7	4	9	8	2	6
8	9	3	2	5	1	7	4
4	8	5	2	9	7	6	1
1	2	3	4	5	6	9	8
7	9	6	8	3	1	4	5
5	3	2	9	8	7	4	6
6	1	8	7	4	3	2	9
9	7	4	1	5	2	3	6

2	6	9	1	3	7	5	4
7	3	9	2	5	6	8	1
1	5	7	4	8	6	2	9
6	9	1	2	5	7	4	3
3	7	4	9	1	5	2	6
8	2	5	6	4	9	1	7
5	6	1	7	9	3	4	2
9	1	3	6	4	2	8	7
4	7	2	4	3	8	1	6

SUDOKUA

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

6	9						
				9		1	
		3		7		8	5
	1		4	9			
9			1		8		7
						6	
		2					
				2			4
		7	3	1	6		

HIEROGLIFIKOAK



Non ikusi duzu hori?



Zer falta zaio oheari?



Non busti da?



Nolakoa da Olaiaren senargaia?

1. LIBURUAN / 2. IZARA / 3. ERREKAN / 4. BIZARDUNA

Otsailak 6 - Otsailak 12

BARIXAKUA 6

GASTRONOMIA TAILERRA

17:30 Gastronomia tailerra, Gazte Safaren eskutik. Portalea (3. pisua).

ZINE-FORUMA

18:30 Pagatxa emakume elkartearen zine-forum feminista: "Tully" (Jason Reitman). Sarrera libre. Portalea (areto nagusia).



INAUGURAZIOA

19:00 "Eibar: Laino guztien gainetik edo... azpitik", Jose Luis Irigoienaren argazki erausketaren inaugurazioa eta luntxa. Topaleku.

ZAPATUA 7

KOKO-DANTZAK

09:00 Koko-dantzak, Kezka Dantza Taldearen eta Eibarko Klub Deportiboaren eskutik. Lehen agerraldia Errebalen. **10:00/14:00** Baserrietako koko-eskea, Otaola eta Mandiola auzoetan. **18:45/21:00** Koko-dantzak herriko erdigunean, Mauxitxa txarangarekin.



GAZTE EGUNA

12:00 IPQ Futbol 7 Txapelketa finantzatzeko jaia. Txosna. **19:00** Rock You taldearen kontzertua. Ondoren, dantzak. **23:00** Los Zopilotes Txirriak taldearen kontzertua. Ondoren, DJ Rokaren saioa. Untzagako karpa.

ANTZERKIA

17:00 "Semaforoa" (Logela Multimedia). Euskaraz. 5 euro. Coliseo.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldegia.

DOMEKA 8

ZALDIBAR ARGITU

12:30 Zaldibar Argituk antolatutako ekitaldia, zabortearen hondamendien 6. urteurrena gogoan. Eitzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldegia.

MUSIKA KLUBA

19:00 Anaut (soul, funk apur baten). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ASTELEHENA 9

MAHAINGURUA

17:30/19:30 "Emakume ingeniariak". Moderatzailea: Laida San Sebastian, Entreprenurship Teknologia ko koordinatzailea. Hizlariak: Mari Luz Guenaga Gomez, ingeniari informatikoa; Elena Idigoras, proiektu

ingeniaria Biele Groupen; Naiara Romanet, Laboral Kutxako ingeniaria. Euskaraz. Andretxea.

KANTU SAIO IREKIA

19:00 Euskal kantuak ikasteko saio irekia. Arrate Kultur Elkarte.

XLIX. ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "La casa" solasaldia, Imanol Ariasen eskutik. Aurkezlea: Irene Hernando. Doan. Coliseo.

MARTITZENA 10

XLIX. ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Mejor no decirlo" (11T' ai Creaciones, Penticion Espectaculos). 20 euro (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten: Miren Amuriza, "Pleibak" liburuar buruz berba egiteko. Eibarko Liburutegiak...eta kitto! Euskaraz. Elkartearekin elkarlanean antolatuta. Portalea (Batzartoki 1-2).

EGUAZTENA 11

IV. ITSASEIBAR JARDUNALDIK

11:30/13:30 Itsas Energia hitzaldiak. Sarrera libre da, lekua bete arte. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (San Andres Aretoa).

XLIX. ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Mejor no decirlo" (11T' ai Creaciones, Penticion Espectaculos). 20 euro (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

EGUENA 12

HITZALDIA

10:00/12:00 "Éxito de las nuevas y viejas derechas radicales. Entre nacionalismos, populismo y antiglobalismo", A.B. Mendozaren eskutik. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera libre. Portalea.

EGUEN ZURI

15:15 Eskoletako taldeen kalejirak. **17:00** Jainaga eta Narbaiza trikitilariarekin kalejira, Urkizutik Untzagara. **17:00** Lisker taldearen erromeria Untzagan. **17:00/19:00** Untzaga plaza, tailerrak: kareetak eta makillajea Astixaren eskutik. **19:00** Mozorro lehiaketak, Galiziako Etxean.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuta. Galiziako Etxean.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 6tik 21era

"Eibar: Laino guztien gainetik edo... azpitik", Jose Luis Irigoienaren argazki erausketa. Topaleku.

Otsailaren 16ra arte

"Estali nazazu lorez", Jon Amorrorturen pintura erausketa. Portalea.

Otsailaren 28ra arte

"Zientzia-emakumeak argira", Elhuyar Fundazioaren eskutik. Andretxea

ZINEA COLISEO



“Tres adioses”
DRAMA. ERROMANTZEA
2025/Italia/120’
Zuzendaria: Isabel Coixet
Aktoreak: Alba Rohrwacher, Elio Germano, Francesco Carril
Drama erromantikoa

1 ARETOA
• **7an**: 17:00, 19:45, 22:30
• **8an**: 17:00, 20:00
• **9an**: 19:30



“Nouvelle Vague”
DRAMA. KOMEDIA.
2025/AEB/131’
Zuzendaria: Craig Brewer
Aktoreak: Hugh Jackman, Kate Hudson, Michael Imperioli
Musika. Benetako gertaeretan oinarritua

2 ARETOA
• **7an**: 19:45, 22:30
• **8an**: 20:00
• **9an**: 19:30



“Frankie y los monstruos”
ABENTURAK. KOMEDIA
2025/Erresuma batua/89’
Zuzendaria: Steve Hudson, Toby Genkel
Aktoreak: Asa Butterfield, Joel Fry, Rasmus Hardiker
Familia zinema

2 ARETOA
• **7an**: 17:00
• **8an**: 17:00

LAN ESKAINTZA

...eta kitto! Euskara Elkartek ADMINISTRARIA behar du

EGIN BEHARRAK

- Administrazio- eta kontabilitate-kudeaketa.
- Fakturazioa, kobrantzak eta ordainketak.
- Aholkularitza zerbitzuarekiko harremana.
- Dirulaguntzak eta dokumentazioa kudeatzea.
- Hornitzaile eta laguntzaileentzako arreta administratiboa.
- Barne-kudeaketarako laguntza.

ESKAKIZUNAK

- Administrazio-zereginetan prestakuntza eta eskarmentua.
- Euskarazko C1 ziurtagiria edo baliokidea.
- Antolatze eta lan autonomia egiteko gaitasuna.

BALORATUKO DA

- Bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten beste titulazio batzuk.
- Eibarren edo inguruetan bizitzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Proiektuarekiko atxekimendua.

ZER ESKAINTZEN DA

- Lanaldi osoko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin).
- Ordutegi malgua eta kontziliaziorako aukera.
- Lanean hasteko data: martxoak 1
- Proiektu erakargarria. Langiro atsegina.
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea.

CVak bidaltzeko epea otsailaren 10era arte elkartea@etakitto.eus



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **ELAIA!** Otsailaren 12an gure etxeko printzesak 5 urte beteko ditu. Ondo pasa zure urtebetetzian eta urte osoan!



Zorionak **NORA!** Gaur 8 urte betetzen dozuz eta. Familixa guztiaren partez! Patxo handi bat.



Zorionak **NERE!** Atzo 9 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NIKO!** Domekan 2 urte beteko dozuz eta! Patxo handi bat asko maitte zaittuen famelixa-ren partez.



Zorionak **ANE!** Astelehenean, hilak 9, 12 urte betetzen dozuzelako. Musu handi bat etxekoen partez, asko maite zaittugu.



Zorionak **ASIER!** Eguenean, otsailak 12, 30 urtetxo betetzen dozuz. 30 musu zure lagunaren partez!



Zorionak **OIHANA!** Atzo 12 urte bete zenduaz-eta. Etxeko danon partez, asko maitte zaittugu, jarraitu horrela!



Zorionak **ELENE!** 10 urte egin dittuzu eta musu haundi bat, famelixaren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak **ADRIANA!** 5 urte dagoeneko! Patxo handi bat famelixa guztian partez! Asko maite zaittugu!



Zorionak **NILE!** Gure bizipoza zara!! Bi urtetxo egingo dozuz astelehenian. Patxo bat famelixaren partez!



Zorionak **MARIA LUZ!** Otsailaren 9an 95 urte betetzen dozuzelako. Asko maite zaittugu!!! Zure famelixa osoaren partez.



Zorionak **ELENE!** Domekan urtetxo bat! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maiaren partez.



Zorionak **DANEL!** Hilaren 8xan 6urte beteko ditu gure etxeko nagusixak! Familixa guztiaren partez.



Zorionak **LIBE!** Datorren martitzenian, otsailak 10, 12 urte beteko dozuz-eta. Etxeko danon eta. bereziki, Ane-rraren partez.



Zorionak **NINBE!** Domekan 3 urte beteko dozuzelako. Patxo handi bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak **JON** gure etxeko mutilari! Domekan 10 urte beteko dozuz eta. Musu handi bat etxekuen partez, asko maite zaittugu!



Zorionak **ASIER!** Zure 11. urtebetetzian. Musu haundi bat famelixaren partez



Zorionak **DIEGO** (otsailak3) eta **IBAI** (otsailak9)! 48 eta 9 egin dittuzue! Asko maite zaittuegu! Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak **EKHI** ta amama **ELENA!** Gaur 2 ta 67 urte betetzen dozuez-eta! Patxo haundi bat famelixako danon partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

- 3. LOKALAK**
- 3.1. Salgai**
- Garaje itxia salgai epaitegi azpiko garajeetan. 15 m2. Prezioa adosteko. 686 633 523.
- 4. LANA**
- 4.1. Lan bila**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. 602398328.
 - Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mugikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.
 - Mekanika ingeniaria eskaintzen da edozein motatako lanak burutzeko: Igeltzeritza, iturgintza, elektrizitatea, pintura... 641838914.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Eguerdiko 12:00etatik aurrera, edozein orduetan. Soziosanitario ziurtagiriarekin. 678135914.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 643860541.
 - Emakumea eskaintzen da arlo soziosanitorian lan egiteko. Tituluarekin eta nagusiak zaintzeko esperientziarekin. 642578943.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako, tituluarekin, astean zehar eta asteburuetan lan egiteko prest. 633101852.
 - Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ordu-tegi zabalarekin. 691675846.
 - Emakumea eskaintzen da nagusia zaindu edota garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ordu-tegi zabalarekin. 691675846.

- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldari laguntzaile bezala aritzeko. Esperientziaduna. 614053038.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldari laguntzaile bezala aritzeko. Esperientziaduna. 631077623.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzan lan egiteko. 602040399.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan, interna bezala. 643584198.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan zerbitzari moduan edo denda batean lan egiteko. 652544839.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tituluarekin, baita garbiketa lanak egiteko ere. 602051567.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, interna, externa edota asteburuetan. 642044618.
- Gizona eskaintzen da banaketa-lanak egiteko eta beste edozein motatako lanetarako. 602824238.
- Eibarren bizi den emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. 641910253. Victoria.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota haurrak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. 633 84 07 08.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo partikularrak emateko. Magisteritza ikasketak. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, edota umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka, asteburuetan edota


- interna. 614950669.
 - Emakumea eskaintzen da etxe-lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko, astelehenetik ostiralera, 13.00etatik aurrera. 620757528.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxe, zein ospitaletan, edota garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 667060292.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 631593925.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 605139585.
 - Emakumea eskaintzen da arlo soziosanitarioan lan egiteko. Tituluarekin. Interna edo externa moduan, baita asteburuetan ere. 642578943.
- 4.2. Langile bila**
- Pertsona nagusiaren zaintzarako emakumezkoa behar da. Interna moduan lan egiteko eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 606671290.
 - Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegirako. Lan giro bikaina. 943208125.
- 5. IRAKASKUNTZA**
- 5.2. Eskaintzak**
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
 - Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatearen prestatzeko. Gehienez lau lagunekin taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.

ek!

Jarraitu
gaitzazu gure
difusio kanal
berrietan



WHATSAPP



TELEGRAM



Zure eguneroko albiste boletina!

10 Kia Egunak badatoz.

Otsailaren 5etik 16ra, deskontu paregabeak.



Movement that inspires

14.800 €-tik*

aurrera finantzatuta

Zure Kia gogokoena estreinatzeko une bat badago, une hori orain da. Beti nahi izan duzuna egiteko unea: Kia kontzesionario batera joan eta merezi duzun aparteko deskontua eskatzea. Zergatik? 10 Kia Egunak direlako eta Kia bat 14.800 €-tik aurrera finantzatuta eskaintzea ez delako gure azken eskaintza.

KIA
NAIA CAR
Apalategi, 1 EIBAR
943 70 70 33
gruponaiacar.com

CO2 isurketa konbinatuak WLTP (g/km): 122-177. WLTP kontsumo konbinatua (l/100km): 5,1-7,8.* GSPP Kia Picanto 1.0 DPI Concept MY25 (zergak, garraioa eta sustapen-ekintzak barne). Ez dira sartzen gestoriako eta matrikulazioko gastuak. Bezero partikularrei aplikatu beharreko eskaintza, Banco Cetelem S.A.U.-rekin Flexiplan kanpainaren bidez finantzatzeko badute, eta finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 7.000 €-tik gorakoa bada, edo ibilgailuaren etorkizuneko balio bermatua gainditzen badu finantzaketa-kontratua amaitzean, eta gutxieneko epea 36 hilabetekoa bada. Eskaintza hau ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin, eta 2026/02/16ra arte edo izakinak amaitu arte balio du (300 unitate eskuragai). Kontsultatu baldintzak www.kia.com webgunean.

